



SEBERO ALTUBE
(1879-1963)

Egilea:

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

SEBERO ALTUBE

Sebero Altube Lertxundi Arrasaten jaio zen, 1879ko azaroaren 8an, Maalako Errebaleko 2. zenbakian, XX. mende osoan zehar eta oraindik gaur ere Zeziaga oihal denda dagoen eraikinean. Gurasoak Juan Alejandro –ugazaba eta sarrailagilea– eta Maria Clara izan ziren. Hiru anaia-arreba izan zituen, Benigno, Jesusa eta Hilario Mercedes. Seme-alaba koskorren bizitza ez ei zen urdin kolorekoa, aita –ezagutu zutenek adierazita– oso gizon zakarra baitzen eta haurrek zein amak etxeko giro sumina pairatu behar izan zuten sarritan. Etxeko giro itzel hura dela eta, behin etxetik Gasteizko senide batzuingana alde egitea erabaki zuten Seberok eta Benignok, ume koskorrak ziren arren. Handik gutxira itzuli zituzten gurasoengana. Maria Clara hil zen eta aita bigarren eta hirugarren aldiz ere ezkondu zen, ezkontza horietatik beste bi anaia jaio zirelarik.

Altubetarrak ez ziren, jatorriz, arrasatearrak, eta Seberoren ondoko hirugarren belaunaldirako Arrasatetik sendiaren arrasto zuzena galdu egin da. Batzuek diotenez, Seberoren

aitaren izaerak senide guztiak uxatu zituen, baita Juan Alejandroren anaia-arrebak ere. Horren harira, diodan, Seberoren osaba bat, Santiago Altube Agirre, Gatzagara ezkondu zela eta Gregorio Altube Izaga notario euskaltzale ospetsuaren aita izan zela. Beraz, Gregorio eta Sebero lehengusuak ziren.



Sebero Altube, estudio-argazki batean.

2



Sebero Altuberen jaiotetxea

Lehen ikasketak Arrasaten egin zituen Seberok, Juan Jose Rodriguez *Maixu zaharra*-rekin. Solfeo ere ikasi zuen, Victoriano Balerdi organo-jolearekin. Baina Altube, musiko izateaz gain, beste lan esparru desberdin batean nabarmendu zen argi bereziz. Linguista izan zen, goi mailakoa gainera, batez ere euskararen esparruan lan ikaragarri zabala eginez. Non eta norekin ikasi zuen? Batere zalantzarik gabe,



Juan Alejandro Altube Agirre

Clara Lertxundi Bedia



barruko suak piztu zion linguistikako grina eta ezelako unibertsitatetik igaro ez zen arren, linguistikako eremua ongi jorratzen jakin zuen. A! Eta Altube, aipatutako lan arlo horiez gain, enpresa gizona ere izan genuen, Gernikan. Nondik zetorkion Seberori ikasteko gogo? Gizon hark ederki ongi ulertu zuen txikitandik ikasketen bidetik lor zezakeela gogo askatasunerako giltza, eta horretan saiatu zen bizitza osoan. Ezagutu zutenek diotenez, «Asko jakiñda be, arrokeririk bapez».

Sebero ez zen sendiko lehen intelektuala izan. Aitapontekoa zuen Miguel de Madinabeitia, Arrasateko udal idazkaria zena, euskal historialarien artean sar daiteke berezko merituz. Madinabeitiak, batez ere, Gipuzkoako historia arakatu zuen, artxiboz artxibo, eta lan gutxi argitaratu zuen arren, bere ekarpena handia izan zen garaiko historialari askorentzat.

3




Arrasaten jaio zen Altube, 1879ko azaroaren 8an.

4

Diodan bezala, beraz, Seberok zintzo eta sakon ekin zion ikasteari Arrasateko bere urte gordinetatik. Aitaren irudia nolabait gainditzeko asmoz edo, izpirituaren heziketari heldu zion txikitatik, eta batez ere musika izan zuen diziplinarik gogokoena. Sarritan gogoratu zituen Seberok, bere jaiotetxeko goiko salan berak biolinarekin eta Nazario Madinabeitia lehengusuak gitarrarekin buruturiko musika emanaldiak. Garai hartan Sebero armonia eta musika

konposaketa ikasten ari zen. Eta, dakigunez, zenbait instrumentu trebetasun osoz jotzen ikasi zuen, besteak beste biolina, rekinto eta gitarra. Baina zalantzarik gabe, dultzaina izan zen guztietatik gustukoena.

Sebero, bere anaia Benigno eta Cristobal Bedia gazteek, hiruak arrasatearrak, garaiko dultzaina talderik ospetsuenetakoa osatu zuten. Jaioterriko udal arkupeetako iganderoko emanaldietatik Euskal Herri osoko jai ugarietara egin zuten salto, eta dultzaina txapelketarik garrantzitsuenetako lehen sariak



Arrasateko musika banda 1901ean. Atzealdean, bakarrik doalarik, Sebero agertzen da, dultzaina jotzen.

irabazi zituzten sarri. Dohain bereziak erakutsi zituen Seberok ume zenetik, eta Arrasateko Musika Bandan jotzen hasi zen hamabost urterekin. 1899ko irailaren 11n Pantaleon Urionabarrenetxea Musika Bandako zuzendaria hil zen eta Udalak Sebero hartu zuen ordezkorik egokientzat aurrerantzean taldearen ibilbidea markatzeko. Eta horren ondorioz 1900ko urtarrilaren 8tik Arrasateko Musika Bandako zuzendari berri izendatu zuten. Orduantxe erabaki zuen Seberok musika bilakatzea bere ogibidea.



Seberok, bere anaia Benignok eta Cristobal Bedia mutikoteak dultzaina talde ospetsua osatu zuten.

ARRASATEK GERNIKARA

Gutxi iraun zuen Seberok Arrasateko Musika Bandaren zuzendaritzan, bere bitzta musikaren ildotik zuzendu nahi zuenez gero Gernikako Musika Bandarako oposizioak egin baitzituen eta baita kargua irabazi ere, 1901ean. Ordurarte Gernikan izandako musika taldeak desegin zirelako, bertako Udalak oposizioetarako deialdia egin zuen, aurrerantzean udal Musika Banda izango zenaren zuzendaritza nori eman erabakitzeke. Aukera horrezaz jabetuta, Sebero Altubek bere burua aurkeztu zuen lehiaketara eta 1901eko abenduaren 26an bera gertatu zen garailea. Hogeita bi urte bete berriak zituen eta ilusio handiz iritsi zen Gernikara, atzean bere jaioterria utzi zuelarik. Gernikan *Arrien*-enean hartu zuen ostatu. Ez dut




Gernikako Sebero Altube auditoriuma.

6

inoiz Arrasatera itzuli zeneko erreferentziarik aurkitu, sendia sakabanatu egin baitzen: Benigno anaia nagusia Elorrion lehenik eta Bartzelonara geroago joan zen bizitzera eta Hilario beste anaiak Argentinara alde egin zuen.

Segituan ekin zion Seberok lanari eta 1902ko Inauteri Igandean aurreneko kontzertua eman zuen bere Bandarekin, hamazortzi musikok osatuta. Urtebete beranduago, berriz, Gernikako Abesbatza sortu zuen eta herriko musika zaletasunari aukera egokia emateko Musika Akademia berpiztu zuen. Musika konposaketari ere lotu zitzaion eta abesti batzuk

idatzi zituen, batez ere bere Abesbatzak kanta zituan. Gernikako Abesbatza zuzendu zuen bitartean, Seberok sari preziatuak irabazi zituen nazioarteko lehiaketetan. Abesbatzak ospe handia hartu zuen eta hasierako hogeita bi kide izatetik hirurogeita hamar izatera pasatu zen. 1916ko azaroaren 22an, Eugenio Zameza Abesbatzako lehendakaria hil zen eta gau hartan Altubek *Si iniquitatis observaveris* hil-antifonarentat musika sortu zuen. Hurrengo goizean, lehendakari ohiaren hileta elizkizunetan Gernikako Abesbatzak bere galarik onenekin jantzita azkeneko aldiz abestu zuen.



Gernikako Bandaren Zuzendaritza irabazi zuen Altubek 1901eko abenduaren 26an. Banderaren aurrean eserita dagoena da.

Poliki-poliki, musikaz idazteari ere heldu zitzaion arrasatearra, lanik nagusienak urte batzuk beranduago argitaratu bazituen ere, batik bat *Euzkadi*, *Txistulari*, *Revista Musical* eta *Euskalerrriaren Alde* aldizkarietan.

Musika Bandako zuzendaria izateari 1916an egin zion uko Altubek, Gernikako Alkartasuna arma enpresako gerentzia eskaini baitzioten. Denetarako denborarik ezak Musika Bandako betebeharrak ofizialei agur egin behar izan ziren. Eta esan daiteke 1916tik 1922 bitartean Seberok musika zuzendaritzako ardurarik ez zuela izan, musika guztiz inoiz utzi ez bazuen ere. Musika Bandako Seberoren ordekoa aurkitzea Seberori berari enkargatu zion Gernikako Udalak eta arrasatearrak Segundo Olaeta aukeratu zuen kargurako, bere musika ikasle

izandakoa, eta urtetan lagun mina izango zuena.

Segundo Olaetarekin harreman estua izan zuen Seberok, eta bion arteko solasaldi luzeetan atera zen euskal dantzari talde bat sortzeko ideia. Gogoz ekin zioten egitasmoari eta Seberori otu zitzaion izena: *Elai Alai*. 1930 urtea zen eta bi lagunek diseinatu zuten taldearen bandera, Altubek taldeari oparitu ziona. 1936ko gerrarekin batera desegin zen baina Donibane-Garazin sortarazi zuten aurki. Handik Frantzia zehar eginiko birari ekin zion talde artistikoak, euskal ordezkari gisa. Urte batzuk geroago Segundo Olaetak *Olaeta Balleta* bikain bezain ospetsua eratu zuen, *Elai Alai*-ko zenbait kideekin.



Gernikako lagunekin,
bazkalondo batean.

Sebero Altube Gregoria Gangoitirekin ezkondu zen Gernikan 1918ko apirilaren 11n. Gregoria argentinarra zen, Azul hirian jaioa. Aita Larraurikoa eta ama gernikarra zituen Gregoriak. Senar-emazteak Gernikan ezagutu zuten elkar. Seberorentzat euskarri indartsua gertatu zen Gregoria, emaztea bizi izan zen bitartean. Ez zuten seme-alabarik izan eta bikoteak aurki hartu zuen alabatzat Benigno anaiaren alaba Elixabete arrasatearra. Diodan, aukera aprobetxatuz, Elixabete, urte batzuk beranduago, Ramón J. Sender espainiar idazle ospetsuarekin ezkondu zela Frantziako erbestean eta seme bat izan zuten.



Gregoria Gangoitirekin ezkondu zen Altube, 1918ko apirilaren 11n, Gernikan.

Lehen esan dudan bezala, Seberok Musika Bandaren zuzendaritza 1916an utzi zuen, bere jakinduria negozioetako arloan eskaintzeko. *Alkartasuna* enpresaren zuzendaritza lanetan ari zen Altube lehendik ere, bertako kudeaketa-kontseiluko kidea baitzen enpresa 1914an sortu zenetik. Lantegiak pistolak ekoizten zituen eta Seberok –harrigarria, benetan!– zerbait bazekien horretaz, zuzendaritzara heldu eta handik bi urtetara pistola baten patentea lortu baitzuen bere izenean. *Sivispace*m bataiatu zuten pistola hark aurki irabazi zuen merkatua. Nondik zetorkion Seberori industriarako joera?



Anaia Benignoren alaba Elixabete, argazkian zutik dagoena, hartu zuten Seberok eta Gregoriak alabatzat.

Errepublika garaian, 1931n, Gernikako alkate izendatu zuten Sebero. EAJ-ko kidea zen, Gernikako batzokian afiliatua. Hiri horren alde eta, oro har, Euskal Herriaren alde ordurarte eginiko lan eskergak erakarri zituen botoak, alkate aukeratua izateko. Altube euskaltzale sutsua zen eta, noski, abertzalea hezur muinetaraino. Bere bizitza saialdi jarraia bihurtu nahi izan zuen euskal kontzientzia indartzeko eta ahalegin horretan ezer inbertitu bazuen, hori bere jakintza izan zen, musika eta hizkuntzalaritzan oinarritua. Altube, beraz, kulturaren bitartez iritsi zen

politikara eta horretan aritu zen bost urtez, bere erkideengan oroitzapen ezin ederragorik utziz.

Alkate bezala, Seberok esku hartu zuen 1931ko ekainaren 14an euskal udalen Lizarrako biltzar nagusian. Urte bereko uztailean, berriz, Gernikak hartu zituen euskal alkateak eta arrasatear-gernikarrari egokitu zitzaion bertaratutako agintariei ongi etorri egitea. Alkatetzan iraun zuen bitartean, Altubek harreman sendoak izan zituen euskal agintariekin eta, bere burua politikotzat jotzen ez zuen arren, estimu handian zuten guztiek, batez ere zintzo jokatu zuelako beti.



Gernikako alkate aukeratu zuten 1931n eta berak egin zien ongi etorria urte hartako uztailean Gernikara bildutako euskal alkateei.



Sebero Altube eta Jose Antonio Agirre Arrasateko lagun talde batekin, 1931ko uztailaren 12an, Gernikan.

Alkate izateari utzi zion 1935ean, gobernadorearekin zituen desadostasunak zirela eta. Gobernadoreak alkate berria izendatu bazuen ere, herriak Altubereren itzulera nahi zuen eta urtebete bat beranduago berriz ere alkatetzarako aurkeztea eskatu zitzaion. Seberok ez zuen onartu nahi izan.

Erbesterako bidea hartu behar izan zuten senar-emazteek 1936ko irailaren 29an. Aurrenik, Argentinara joan ziren, emaztearen senitartekoengana, baina handik Pauera aldatu ziren aurki, frantziar hirian hogeita bi urtez

bizitzeko. Bertan, aurretik linguistikan eginiko ikerketa lanaz gain, filosofiako esparrua eta fikziozko literatura jorratu zituen, batez ere. 1956an, Frantziako *Centre National de la Recherche Scientifique*-ko zuzendariari idatzi zion eskutitzean irakur daiteke Altubek bere lanari buruz egiten duen mugaketa:

Nire lanaren historia luzea da, eta ez nuke laburtu ahalko obraren balioa murriztu gabe. Dena den, diodan, 1936ra arte, zientzia, linguistika, arteak eta musika landu ditudala, batik bat. Liburu batzuk publikatu ditut, txosten eta artikulu ugariarekin batera, aldizkari espezializatuetan. 1936tik, berriz, oso ikerketa desberdinerara lotu naiz.

Erbestetik 1958an itzuli ziren Sebero eta Gregoria. Ordurako Sebero agure bat zen, osasun makalekoa, eta Gernikara iritsi bezain laster ospitalera



Sebero eta Gregoriaren etxea, Gernikan.

eraman zuten, hogeita bi urteko erbestealdiak bere gorputzean utziriko nekea arintzearren. Hala ere, Gregoria hil zen lehenago, 1961ean, eta Seberoren izpiritua zeharo erori zen, bakartasun eta oinazean. Segundo Olaeta eta Castor Uriarte antzinako lagunekin zituen solasaldiek bakarrik animatzen zuten pixka bat Seberoren gogo. Baina arrasatearraren osasunak beherantz egin zuen eta 1963ko abuztuan larriagotu egin zen bere egoera. Heldu zitzaion Paristik Elixabete iloba eta honek zaindu zituen Seberoren azkeneko orduak.

11



Erbestera doaz Altubetarrak 1936ko irailaren 29an. Lehenik Baionara, gero Argentinara eta, azkenik, Frantziako Pauera. Ez dira Gernikara 1958ra arte itzuliko.

12

Buru argi egon zen azken egunera arte, baina bizitzeko esperantza galdua zuen. Oheraino etortzen zitzaizkion lagunek euskarazko abestiak kantatzen zizkioten. Bi tronbosiren artean, alemaniar soldaduek Paueko kaleetan desfileatzean egiten zuten hotsaz hitz egin zien han zeudenei. Eta *Lili Marlen*-en melodia kantatu zuen. Toni Rossi abeslaria entzun nahi zuela eskatu zuen eta disko bat ipini zioten.

1963ko abuztuaren 27an, Lunoko organoa jotzen zueneko abestia errexitatu zuen Seberok Elixabeterekin batera, emozio handiz. Une batzuk beranduago, arratsaldeko ordu bietan, azken arnasa eman zuen, «Neure loba maitia...» izan zirelarik bere azken hitzak.

Biharamunean eman zioten lur Gernikako kanposantuan. Hileta elizkizunek lagun ugari eraman zituen elizaraino. Herriko agintariak, Euskaltzaindiko kideak, euskaltzale eta abertzale asko, arrasatear eta gernikar adiskideak, eta Seberoren Musika Banda, Arrasatetik Gernikara aldatzeko arrazoi nagusia eta gure gizonaren izakirik kuttunetakoa. Musika Bandak azken omenaldia egin nahi izan zion bere aurreneko zuzendariari. Arratsaldeko sei etan ehortzi zuten Altube, bularraldean ikurrina zeramala eta oinetan, Gernikako Arbola dagoen tokiko eskukada bat lur.



Sebero 1963ko abuztuaren 27an hil zen eta biharamunean ehortzi zuten bularraldean ikurrina eta oinetan Gernikako Arbola dagoen tokiko eskukada bat lur.

Ordudanik, granitozko bi mojek zaintzen dute gau eta egun Seberok berak diseinaturiko hilobia. Batak otoitzean diharduen bitartean, besteak Seberoren *Mari Jesiak* partituraren aurrean musika isila jotzen du etengabe. Altubek idatzitako gogoeta batek mugatzen du, han ehortzita dagoen gizonaren nortasuna:

Jainkoak, Adanen bidez
zigorkatu ginduzanez,
lur bizitza igaro dozu
pena askogaz, poz eskasez.
Zerua irabazia dozu, bai!
Nekaldi horren ordaiñez.



Hilobia Gernikako kanposantuan.

SEBERO ALTUBE LINGUISTA, FILOSOFO, LITERATURGILEA

Euskararen azterketa lanetan sartzen denean, gure hizkuntza morfologia, joskera eta tonuarengatik ikertu beharko litzatekeela dio Seberok, ate berri bat irekiz euskal linguistikako zereginetarako. Musikak hizkuntzan irekitako bideetatik aztertu nahi izan zuen Altubek euskara eta bere teoriak garai hartan eta geroagokoetan ere zalaparta dezente ateratu zuen.

Hizkuntzaren gaineko arloan lan egiten mende hasieran hasi zela esan daiteke. Seberok berak aitortzen du linguistikak tiratzen zuela eta europar hainbat hizkuntzalari ospetsuren obrak irakurri zituela. Hovelacque, Dauzat, Gregoire, Meillet eta beste hainbaten teoriak ezagutu zituen, bereak egituratzen hasi orduko. Teoria apurtzaileak, askotan, Altubek euskararen kasura aplikatu nahi izan zituenak.

Azkuerekin dituen lehenengo harremanak 1909koak dira, batez ere hiztegi gaiak tarteko. Lekeitiarrarekin harreman estua izan zuen Altubek urtetan, beti harekiko bere mirespena azalduz. Sarritan joaten zitzaion Azkue Gernikara eta baita Altubek Bilbora bisitatu ere. Euskaltzaindia sortu baino lehen bien etxeak izan ohi ziren lan topalekua. Gutundegi zabala osatu



Resurrección María de Azkueri 1920an igorri zion eskutitz bat, arrasatearra euskaltzain izendatu eta berehala.

zuten bien artean, Azkueren galderei arrasatearrak ahalik eta modurik zuzenean erantzuten zielarik, nahiz eta batzuetan oso denbora murrizta zuela aitortzen zion. Azkueren *Diccionario español-vasco* delakoan Altubek bere ekarpen txikia izan zuen.

Oñatin egon zen Sebero 1918ko irailaren aurreneko astean, Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresuan esku hartu baitzuen. Handik sortu zen Euskaltzaindia eratzeko ideia eta Resurrección María de Azkue, Julio Urkijo, Arturo Campión eta Luis Eleizalde laukoteak jasotako enkarguari eitea emanez, urtebete bat beranduago lehen euskaltzainak izendatu ziren, Gipuzkoako Diputazioan eraturiko batzar batean. Aipatutako lauez gain, Domingo Agirre, Pierre Broussain, L'abbé Adema, Ramon Intzagaray, Jose Agerre, Juan Bautista Eguzkitza, Raimundo Olabide eta Pierre Lhande izan ziren aukeratuta.



Eusko Ikaskuntzaren batzar batean

Txomin Agirrereren heriotzak utzitako hutsunea betetzeko Sebero Altube izendatu zuten euskaltzain 1920ko ekainaren 22an. Euskaltzaindia bazez bileren eta arrasatearraren ekarpena ez zen makala izango hurrengo urteetan. Ordurako, noski, euskarari buruzko bere lanak ezagunak ziren. Baina urte harrez geroztik Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian Altubek argitaraturiko lanak asko dira eta ez nolana hikoak, gainera. Izendatua izan eta handik hilabetera aurreneko lanaren irakurketa egiten du arrasatearrak: *Erdaratiko itzak, itz barrijak eta aintxina-itzak* deritzan hitzaldia irakurri zuen uztailaren 23an, Iruñean. Hitzaldiaren tituluak garbi azaltzen du, Altuberen kezka nagusiaren nondik norakoa.

Urte bereko abenduaren 28an irakurri zuen Altube euskaltzain berriak Akademiara sartzeko diskurtsoa. Titulua *Izkuntz jakintzia eta euskeriaren bizitzia* izan zen. Azkue euskaltzainburuak egin zuen euskaltzain berriaren aurkezpena. Seberoren hitzaldi hartatik ondoko hitzak atera ditut:

Euskerearen bizitzia: esan bearrik eztala dirudi baiña bada: euskaltzaleok, euskerea maite dogula diñogunok, euskerari dagokion gauzeetatik gorengotzat, beiñentzat, nagosijentzat, beronen bizitzia euki bear dogu... Baiña gure maitetasun ori, ez bedi itxua izan; maitetasun itxuegija, sarri, maite dogun gauziarentzat, laguntasun orde z eragozpen izan oi-da-ta; mesederen orde z, kalte...

15



Euskaltzaindiaren
batzar batean

Eusko Ikaskuntzak bere Kongresuan Gernikan eratu zuenean, 1922an, Sebero Altubek hitzaldi berri bat eman zuen, *Euskal itz barriak, eurok eraltzeko erderaak zetara lagun egin bear deuskuen* izenburuarekin. Seberoren lan honetan euskarak erdaratik ere hitzak hartu beharko lituzkeela zioen eta, itxura denez, Azkue euskaltzainburuari ez zion proposamen horrek grazia handirik egin. Horren erreakzioa alde aurretik ezagutu izan balu bezala, Seberok ohar bat egin zuen hitzaldiaren hasieran, emango zituen iritziak bereak zirela azpimarratuz, eta ez zuela ekitaldi hartan Euskaltzaindia ordezkatzeko adieraziz. Hitzaldi luzexkatik ondoko esaerak atera ditut:

Izkeria barriz gauza bizija bezelakotzat artzekoa dogu. Argizerizko santuari, edo giza-irudi bateri egin leijo, emen zatitxu bat kendu. an imini; gorago ar araijatxu bat egin, beerago azpilduratxu bat atara, zintzel, formoi, ezten edo beste edozetariko erreminta, edonun eta edozela ezarririk. Baiña izkeraak etxakuz orrelakoak; azur, mamiñ eta azala, odol eta izardija alabeen benetako bizikijen antzeko baiño. Eta etxagokoe eurai iñor zirika ta zati-iminka ibilterik. Baldin geure izkeriau ba, sendatu ta indartu nai badogu, egualdijak zugatz, ortukari ta beste landaraki orori bezela emon giñeijo

laguntzia; landarakija, eguzki-eurijak onuratu oi-dabe; izkeria, ekiñaren berotasun eta beti agoan erabilijaren bustitasunak. Orixe dogu guk ere bide BAKARRA, asko ta askori nekez burura sartzen bayaku ere: atara aixetara geure izkera maitiau, erabili beti-ta-beti, edo-nun eta edo-norekin; emon orretaraxe bizija ta indarra, eta orduan erez izango dogu bear dan neurritz garbitu ta txukuntzea, alboko bedar txar ta gauza eztiranak kenduz; beste asmokeri ta barrikerizko bideok, alperriko ta kaltegarri baiño eztira.

Urte batzuk beranduago, 1963an, arrasatearraren heriotza zela eta Aita Villasantek *Euskera* aldizkarian argitaraturiko «Altube, iztegi arazoetan maisu» artikuluan garbi aitortzen zuen, hiztegi sailean inork ez bezala erakutsi zuela Seberok euskarari dagokion bidea. Eta 1922ko hitzaldi hartan Seberok azaldutakoa guztiz zuzena zela zioen euskaltzainburuak

Baina ezelako zalantzarik gabe, aipamen berezia merezi duen lana *Erderismos* izenekoa da. 1929an *Euskera* aldizkarian argitaratutako lan hau liburu gisa atera zuen urtebete beranduago. Badirudi, ikerketa lan berri horretan ere Azkueren zurrunkeriaz tril egin zuela Altubek, eta egundokoak entzun behar izan zituen arrasatearrak lekeitiarrarengandik. Egia esan, kritika zorrotzak jaso zituen



Erderismos da Sebero Altuberen obrarik garrantzitsuenak.

Seberok orduan eta baita geroago ere, eta sarritan esan den bezalaxe, ordurarte euskal hizkuntzalaritzan egindako ekarpenik eztabaidatuenetakoa gertatu zen obra hori. Azkuek, beraz, ez zuen ontzat hartu eta urte batzuk beranduago Luis Mitxelenak ere ezten zorrotza jaurtiki zion, Altubek «dena eta bear litzakeana» nahasten zuela salatuz.

Altuberen lan horri egin zaion kritikaren arabera, *Erderismos*-ek ez zuen euskal joskera bere osotasunean neurtzen eta alde horretatik Seberok berak ere onartzen zuen leporatutakoa. Baina Seberoren asmoa ez zen euskalki guztien gaineko ikerketa egitea. Gehien bat, garaiko euskal idazleengan antzematen zituen

hutsik nabarmenenak ekiditeko arauak finkatu nahi zituen. Askok, Seberok beste garbizalekeria bat ezarri nahi izan zuela egozten diote, lexikoari dagokionaz gain. Joskera irrealia sortu nahi izan zuela diote. Baliteke, askotan zurrun samar agertzen baita, baina ez da egia txikiagoa gure hizkuntzari buruz egin daitezkeen hainbat galderari erantzun egokia eskaintzen zaiela Altuberen teoriatik.

Hala ere, badira –noski– arrasatearraren lana gorai patzen dutenak. Aita Villasante, Aita Onaindia eta lokin Zaitegi dira, besteak beste, Altuberen lana behin baino gehiagotan defendatu dutenak. Altubek, azken finean, euskara bizi eta egunerokoa maite baitzuen, argi eta garbi. Aita Villasantek, gainera, *Erderismos* liburuaren bigarren argitalpena burutu zuen 1975ean eta liburu gisa osterara argitaratzeko arrazoien artean, Altuberen obra mardula dela dio orduko euskaltzainburuak, azterketa sakon, zehatz eta ondo eginaren markak sobran ere dituenak.

Sebero Altubek berak liburu honen hitzurrean zioenez, euskal idazleen erdarakadarik txarrenak joskerari dagozkionak dira eta alde horretatik euskararen nolakotasunik argienetakoa, esakuneei eman dakiekeen esangura desberdina zela

aipatzen zuen, haien zati desberdinek esaeraren barruan duten tokiaren arabera. Eta Altubek bere teoriako langaia bilatzeko herri euskarara jo zuen, euskaldun zaharren euskara eredutzat hartuz. Bigarren aukera eta aurrekoaren osagarri bezala, Altubek idazle zaharren testuak arakatu zituen.



La vida del euskera
izan zen 1933ko
Eusko
Ikaskuntzaren
Udako Ikastaroetan
Altubek eskainitako
ikasgaia.

Eta arrasatearrak garbizalekeriarekin jolastu zuen. Alde batetik, sintaxian –hitzen arloan– antzematen zuen garbizalekeriaren aurka egin zuen. Bestetik, joskerari dagokion esparrua zaindu beharra zegoela iruditzen zitzaion eta bere teoria landu zuen, beste muturreraino joateko arriskua zuela ohartu gabe. Horixe da, beraz, Altuberi gehien egozten zaion akatsa,

oker eta huts batetik alde egiteko diskurtsoaren bitartez beste huts berri batera erortzeko bidea zabaldu zuela. Aita Villasantek dioenez, 1952an Pauen bisitatu zuen Sebero Altube eta honek adierazi zion, *Erderismos* berriz ere argitaratu behar izan balu zenbait puntutan irekiagoa azalduko zela.

Sebero Altube ongi ezagutu zuen beste euskaltzale handi bat lokin Zaitegi dugu. Biak erkide, Zaitegik ere Pauen bisitatu zuen *Erderismos*-en egilea. Eta adiskidantza horretatik dator, *Euzko Gogoa* aldizkarian Altubek azalduko *Erdarakadarik txarrenak* deritzan lana argitaratu izana. Zaitegik zioenez, behin baino gehiagotan leporatu zion Altuberi euskal gaiez erdaraz idaztea, eta horrexegatik erabaki zuen Altubek Zaitegiren aldizkarian publikatzea.

Sebero Altubek hausnarketa sakon bat egin zuen 1933an, Eusko Ikaskuntzaren Udako Ikastaroetan, linguistika orokorraren printzipioen hedapenari buruz aritu zelarik, euskarari egokituta. *La vida del euskera* izeneko hitzaldi mamitsua burutu zuen. Bertan, Seberok –lehenik eta behin– garrantzia ahozko euskarari eman behar zaiola zioen. Hizkera tekniko eta literarioaren arteko desberdintasuna gogoratzen zuen bere hitzaldian, bigarrean aise

ibiltzeko herri hizkeraz ongi jantzia egon behar dela argudiatuz. Hizkuntza literarioaren batasuna beharrezkotzat jotzen zuen: «euskal literaturaren batasunik eza da euskal pizkundearen errurik larrienetako bat» idatzi zuen. Azkenik, linguistika unibertsalaren metodoak euskarari aplikatu behar zitzaizkiola defendatzen zuen arrasatearrak bere mintzaldian.

Hiru urte lehenagoko Udako Ikastaroetan bere hitzaldiak sorturiko zalaparta zela eta Seberok *Más sobre la vida del euskera* eman zuen argitara 1936an, Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian.

Ezaguna den moduan, 1923 eta 1925 bitarteko *Euskera* aldizkarian Resurrección María de Azkuek bere *Morfología Vasca* argitaratu zuen, lan handi eta ausarta, zenbait belaunaldik ezinbesteko liburutzat hartu dutena. 1934an Sebero Altubek, lehenik aldizkari berdinean eta gero liburu gisa ere, *Observaciones al Tratado de Morfología Vasca de don R.M. de Azkue* izeneko erantzuna publikatu zuen. Bere ihardespenean, Altubek bi ekarpen mota eskaintzen ditu: Azkueren Morfologiako testurako argibide edo gehigarriak, alde batetik, eta Azkuek Morfologian oker interpretaturikoen gaineko azalpenak, bestetik.

Altubek berak dio, ez duela bere erantzunarekin maisutzat daukan Azkueren kontra ezer jaurti nahi izan, nahiz eta arrasatearraren ekarpenak 230 orrialdeko luzera hartzen duen. Kontuan izan behar da Azkueren obra lau bider luzeagoa zela. Hala ere, Altuberi behinola asmo onak txirrist egiten diola dirudi, batez ere arlo etimologikoan Azkueri galdera eta ate gehiegi faltsutan itxitzat uztea leporatzen dionean. Eta, areago, «detestable ejemplaridad» hitza erabiltzen duenean, lekeitiarrak ontzat emandako etimologia okerren bidez beste batzuk legez kanpokotzat hartzen dituelako, antzinako joskera-formak errefusatuz.

19



Azkueren *Morfología Vasca*-ri eginiko azterketa lana bildu zuen Altubek bere argitarapen honetan.

20


Altube hizkuntzalaria alde batera utzita, gogora dezagun izan zela Altube filosofo bat, gizartearen arazoekin zeharo kezkatuta. Berak dioenez, Gernikako bonbardaketaren ondoren sortu zen berarengan giza oinazearen zergatian sakontzeko asmoa. Pauen bizi zen eta bertatik buru-belarri ekin zion europar filosofo askoren lana ikertzeari. Gernikako saminaz gain, Altubek Arrasate bere jaioterrian gerrako irabazleek afusilaturikoak izan zituen gogoan, eta egileak berak dioenez, horrek guztiak eragin zuen bere bizitza arazo horren muina antzematera, hau da, oker eta gaiztoa zein giza oinazearen zergatiaren funtsa bilatzera.



Sebero Altubek oinazearen zergatiaz filosofatu zuen, Euskal Herriak 1936ko gerratean pairaturikoa abiapuntutzat hartuta.

Horixe izan zen Altubek bere buruari jarri zion erronka berria eta exilioko Paueko ordu luzerik gehienak ikerketa mota horri eskaini zizkion. Altubek dioenez, ikerketa lan honetan hogeitabat urte eman zituen. Zer-nolako ahalegina burutu zuen jakiteko, ikerketa lanaren bibliografia irakurtzea nahikoa da, bertan zerrenda aberats bat ageri baita. Lana espainieraz idatzi zuen, eta askoz luzeagoa da, 1958an frantseseraz *La fonction de la douleur* izenburuarekin publikatuko zuena baino.

Oinazearen zergatia bilatu nahian jardun zuelarik, bitxia bada ere, ez zen geratu arrazoi teologiko edo filosofikoak zehaztean, eta irtenbide zientifikoa eman nahi izan zion arazoari. Frantziako filosofo batzuek –Jean Sarrailh, Vladimir Jankelevitch, Raymond Bayer, besteak beste– oso iritzi onak eman zituzten obrari buruz eta horietan oinarrituta, frantziar Centre National de la Recherche Scientifique (CNRS) delakoak lanaren laburpen bat argitaratu zion Sciences de la Nature izeneko sailaren barruan. Urteak eman ondoren, ikusgarria da zer-nolako gardentasunarekin asmatu zuen Altubek munduaren ibilbidea, eta Gizadiaren Etorkizuna izenburuko sailean ondo zehaztu zituen gizadiaren urratsak.



Malraux frantziar ministroak esku hartu zuen zuzen-zuzenean, *La fonction de la douleur* liburua argitalpenean.

irabazleek garaituen kontra agindutako fusilamenduak, hain zuzen. Ez zen horretan gelditu Altuberen salaketa eta obra filosofikoaz gain, sortzezko literaturan ere une ilun haiek islatu nahi izan zituen, berriz ere gerta ez zitezen, nonbait.

Bere jaioterriaren aurkako gerra eraso, fusilamendu eta gainerako gertaera latzetan oinarri zuen Altubek bere literatura obrarik ezagunena: *Laztantxu eta Betargi*. Oso euskara txukun –agian zailxe samarra den arren– erabili zuen, gertakari lazgarriaren deskribapen historiko fikziozkoa egiteko. Arrasturi izena eman zion idazkian bere Arrasateri. Eta hitzaurrean dioen bezala, liburuan

Seguru nago Altuberen alderdirik ezkutuen dela filosofikoa, baina diziplina anitzeko gizon haren nortasuna behar bezala mugatzeko ezinbesteko arloa dugu. Ezingo litzateke arrasatearraren irudia bere osotasunean epaitu, Altube filosofoa ezagutu gabe.

Aipatu dut lehenxeago, giza oinazearen zergatian sakontzen hasteko abiapuntuetariko bat, Arrasateko bizilagun batzuen heriotza izan zela, 1936ko gerraren ondorioz



Laztantxu eta Betargi izenburuean, 1936ko gerratearen ostean arrasatear bikote batek bizi zituen zoritxarrak deskribatu zituen Altubek.

22

agertutako guztia bere begiz ikusi eta bere belarriz entzundakoa da; edota bere konfidantzarik handieneko lagun zintzo eta egitiarrek kontatuta. Arrasateko historia hurbila ezagutzen dutenek garbi asko asma dezakete zeintzuengan oinarritu zen Altube, Laztantxu eta Betargi pertsonaiak deskribatzeko.

Lehen argitalpena *Alderdi* aldizkarian egin zuen, 1957an. Eta bigarren argitalpen bat ere izan zuen liburuak, 1979an. Lastima da, gerrako jazoera lazgarrien berri ematen duen liburu hau oso irakurlego murrizak ezagutu izana, historia bere nolakotasunik garrantzitsuenen artean kokatzeko istorio baliagarria baita Altuberena. Sarritan gertatzen den bezala, euskaldunok gara itsuenak geure kontuetarako.

Sebero Altuberena lana begi kritikoz izan dela aztertua esan dut goian. Eta kritika ez zaio beti oso aldekoa gertatu, batez ere zurrunkeriazko ukitua egotzi zaiolarik, joskeraren gaineko teoriak euskara osora aplikatu nahi izan dituenean, batez ere. Agian horrela da. Gaur egun ontzat emango ez lirakekeen teoria batzuk egituratu zituela diote adituek. Baina horretan, behintzat, meritua eman behar zaiola iruditzen zait, ausarta izan baitzen, euskal linguistikaren zutabeak



Gernikako Junta Etxean, beste batzuen artean, Luis Mitxelena hitz egin zuen, 1979ko abuztuaren 27an.



Altuberena mendeurrena ospatu zuen Euskaltzaindiak 1979an. Abuztuan ekin zitzaion egitarauari, Gernikako udaletxean.



Euskaltzaindiaren IX. Biltzarrari eman zitzaion hasiera Arrasaten, 1979ko abenduaren 20an.



Sebero Altuberen biografia eta bibliografia biltzen dituen liburua.

Oharra: Sebero Altuberen bibliografia osoa SEBERO ALTUBE (Josemari Velez de Mendizabal. CAMSS .1979) liburuan aurki daiteke.

hutsaren hurrena zirenean. Seberok bide bat ireki zion euskal linguistikari, eta hainbat arlotan Azkueren doktrinaren osagarri bilakatu zen. Ez da gutxi eskatzea, berak zioen bezala, jostera, morfologia eta tonuaren aldetik ikertu behar dela euskara. Eskatu eta, noski, ariketari ekin, arrasatearrak egin zuen legez.

Sebero Altuberi 1979an eskaini nion liburuaren atarikoan Patxi Altunak zioen bezala, Altube bezalako gizonak ez ditugu euskaldunok dozenan hamahiru izan ohi. Eta horrela baieztatzen dute, urteak eman ondoren, arrasatearraren obra soseguz eta denborak ematen duen perspektibaz aztertu dutenek ere. Altubek euskararen etorkizunean sinesten zuen, eta horregatik saiatu zen bere hizkuntzaren oinarri linguistikoa txukuntzen, berari egokien zeritzaion bitartekoarekin. Lortu ote zuen ala ez beste gauza bat da. Denok bezala, Altube bere garaiko semea izan zen eta testuinguru horretan epaitu behar dugu, dituen akats eta bertute guztiekin. Baina ezin dakioke meriturik ken. Gogoz ekin zion lanari eta ekarpena ez zen nolana hikoia gertatu.

Aita Villasantek, bere aldetik, behin idatzi zidan bezala, gizon gehienetan bezala, Altuberengan ere egon daitezke mugak. Baina Altuberan pertsona eta lana, bere balio eta muga guztiekin, hor geldituko zaigu beti tente, ispilu eta mugarri antzo. Denontzat ikasbide.

Zalantzazko uneetan, euskararen susperketa ahaleginetan ari garela zuzen ote gabilzan neure buruari itauntzen diodanean, Seberoren hitz haiek ekarri ditut gogora:

Atara aixetara geure izkera maitiau, erabilli beti ta beti, edonun ta edonorekin, emon orretaraxe bizija ta indarra... Beste asmokeri ta barrikerizko bideok, alperriko ta kaltegarri baño eztira...



Sebero Altube liburuaren aurkezpena Arrasateko udaletxean, 1979ko abenduaren 6an.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Josemari Velez de Mendizabal.*
- *Eusko Ikaskuntza.*
- *Euskaltzaindia.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2000ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1621-2 (Obra osoa)
84-457-1622-0

L.G.: BI-3151-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística